

1. BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun jendeak pisuak alokatzeko zailtasun asko dituzte, eta hori konpontzeko enpresa hau sortu dugu, lanean eta ikasten dauden pertsonentzat. Colliving enpresa bat bizikidetzan oinarritzen da; pertsona talde batek pisu bat partekatzen duelako, eta horregatik pisu hauetan antzeko bizimodua duten pertsonak egongo dira, gustora sentitu daitezten. Norberak bere logela edukiko du, komunak bi pertsonen artean partekatuko dira, etxeak ongi moldatuak egongo dira, eta partekatutako saloia izango dute, sukaldea eta garbitegi bat. Gainera, logela bakoitzak giltza bat edukiko du, izan ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu gure bezeroak seguru eta gustora egotea.

Pisu bakoitza ongi egokituta egongo da alderdi batzuk kontuan hartuz: adinaren arabera, sexuaren arabera, eta azkeneko irizpidea izango da ikasle eta langileak bereiztea.

Pisu bakoitzean sartzeko irizpide hauek ezarriko ditugu, horrela gure bezeroak gustora sentituko dira. Interneten alokatzeko dauden pisuetan askotan egia esaten ez denez, gure enpresa fidagarria izatea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Honen adibide gaur egun interneten oso erraz ikusi daiteke: interneten hiru gelako pisu bat dela ageri daiteke, baina azkenean 5 gela egotea.

Aldi berean, bezeroek egin behar duten bakarra gurekin kontaktuan jartzea eta galdetegi bat betetzea izango da, oso eroso. Ondoren, galdetegian esandakoaren arabera, pisu batean edo bestean kokatuko ditugu pertsona horiek eta gu arduratuko gara tramiteetaz. Horrela, zure pixukidearekin esperientziak, afizioak... partekatzea lortu dezakegu eta aldi berean, mugitu zaren hirian, kasu honetan, Donostian, hasieratik lagunak zihurtatuta edukiko dituzu.